

HERRIARI DAGOKIO AUTODETERMINAZIOA

HILE honen 26-29 bitartean Euskal Herriko hiriburuetan Autodeterminazioari buruz egingo den kongresuan hitz batzu nagusituko dira: Nazioa (estatu/nazioa eta estaturik gabeko bazioa). Etnia eta batez ere *Herria*. Kongresuaren titulutik bertatik hasita hitz horixe datorkigu begitara: «Euskadi eta Herrien autodeterminazio-eskubidea». Bertan eskainiko diren hitzaldi eta mahainguruetako gaiak ikusiz, berriz, hamar bat aldiz irakur dezakegu *Herria* hitza.

Ezaguna da hitz horren manipulazioa politikari eta gizarteko gidari demagogikoen artean. Buruzagiak txalotzeko, noizbehinka botoa emateko, tartean haien «politikaren» zurigarriztat aipatzeko «jendetza hori» da Herria. Demagogia eta populismoa batera joan ohi dira: Herria erabiltzea esan nahi du demagogiak. Izaki abstraktua, hitz magikoa da orduan Herria. Eramangarria eta erabilgarria.

ESKU artean daukadan *Revolución-Represión o Burujabetza* liburuan autodeterminazioa kontzeptuari (autoreen ustez, kontzeptu marxistari) burujabetza kontzeptua (euskal foruetan oinarritzen omen dena) kontrajarri zitzaion. Ez dugu honako hau, liburuak daraman eztabaidan sartzeko unea.

Herria kontzeptuaren analisisan oinarritzen da, alde batetik, autodeterminazioa; horregatik horren edukin filosofikoa, antropologikoa (etnikoa) eta historikoa aztertzen saiatuko da, batetik kongresua, programan aditzera ematen denez. Baina, bestalde, nazioarteko zuzenbideak jaso duen herrien eskubidea da autodeterminazioa. Kongresuaren egunetan sarritan aipatuko diren testuak dira seguruenik ondoko hauek:

Nazio Batuek «nazioen arteko adiskidetasunezko harremanak bultzatuko dituzte, Herrien eskubide-berdintasunaren printzipioa eta horiek beren buruen jabe izateko duten eskubidea errespetatu». (*Nazio Batuen Karta*, l. art., 1945).

«Herri guztiek dute eskubidea beren buruen jabe izateko. Eskubide horren arabera, beraiek erabakiko dute askatasun osoz beren estatutu politikoa eta askatasun osoz segurtatuko dute beren garapen ekonomikoa, soziala eta kulturaz-

Paulo AGIRREBALTZATEGI

koa». (ONU, *Giza eskubideei buruzko Hitzarmen nazioartekoak*, 1967).

Herrien arteko arazo politikoa eta juridikoa da, beraz, autodeterminazioarena; horren eskubidea eta askabidea nekez azalduko ditugu gaurko harreman nazioartekoetan, euskal foruetako burujabetzan geldituz. Gure Herriaren autodeterminazioa Herrien arteko arazoa da azken batean.

KONGRESUAREN eginkizunik nagusienetako bat herritasunaren kontzeptua bera argitzea izango da, uste dudanez. Horretaz ihardungo diren antropologoei, soziologoei, politikoei eta juristei utziko diet lan hori. Baina egokia deritzat *Herria* hitzak euskal literaturan eta mintzairan dituen adiera ezberdinei buruz ohar batzu egiteari. Horretarako zenbait euskal autore zahar ikusi dut.

Herria hitzaren erabilera demagogikoa baztertuz, horren adiera ezberdinak geografiatik eta demografiatik teologia eta eskatologiaraino doaz, adiera soziologikotik eta etnologikotik igaroz. Sarritan ez dago gaztelaniazko *pueblo* hitzari begiratzetik, gaurko erabileran herri-pueblo automatismo zozoz kidetzeko joera badago ere.

Adiera geografikoa du, hasteko, lurraldea edo eskualdea —areago, ibarra, mendiaren kontrakoa— esateko: «Egypto-herria» esaten du Mendiburuk, bai eta «promisioko herria» (Israel) ere; edota «katolikoan herriak», Agirre Asteasu-koak; «herrialdea», «beterrria», «goierria» erabili izan dira eta erabiltzen dituguk guk.

Herriaren esangura demografikoa aski zabaldua da, leku jakin batetan bizitzen jarririk dagoen jende-multzoa eta

horien etxe-saila adierazteko: Oñatiko herria, e.b. «Troiaiko herria» dio Mendiburuk. Esanahi honek berak badu zerikusirik herria = ibarra berdinketarekin: «erri edo valle» dio Lardizabalek.

Bestalde, herria hitzaren adiera teologikoa daukagu euskal autore zaharretan, bai eta gaurko Elizaren hizkeran: «Eliza, Jainkoaren herria», «herri hautatua» (Israel), «zeruko herria» (Agirre Asteasu-koa).

Adiera geografiko-demografikoaren eta teologiko-eskatologikoaren artean daukagu herriaren adiera *soziologikoa* eta *etnologikoa*, gaur hemen nabarmentzea dagokigunak. Adiera soziologikoa du, klase herritarrek esan nahi duenean, hau da, gizartean botere politiko, ekonomiko eta sozialik ez duen jende-multzoa. Iparraldeko literaturan eta jendearen artean erabili izan den *populu* hitzaren esanahiari hurbiltzen zaio orduan herriarena. Azken urteotan, bestalde, hainbat idazlek hegoaldera ere zabaldu izan du kontzeptu hori.

HERRIAREN adierarik nabarmentzena, azkenik, *Euskal Herria* izenak berak darama. Horren edukin antropologiko, linguistikotik eta historikotik edierazteko «etnia» hitza asmatu zuen Vacher de Lapouge-k XIX. mendearen azkenean, eta gerora arrakasta handia ukan du, «pueblo» edo «people» hitzen nahasmendua gainditu nahian. Herri «etnikoaren» edo etniaren ezaugarriak laburbilduz, R.J.L. Breton-ek (*Les Ethnies* liburuan) ematen duen definizio honekin gera gaitzeko, oraingoz, soila bada ere: «Kultura bereziak batzen duen giza multzoa, hobeto esanda, giza elkarte, da etnia». Ondoren zehazten diren ezaugarrien artean, nabarmen geldituko da hizkuntzaren garrantzia, herria edo etnia oinarritzean eta azaltzean.

Hizkuntza eta kultura: biak ipintzen ditu Guy Heraud-ek ere Etniaren (Herriaren) ezaugarri nagusitzat. Eta berak segurtatzen gaitu bide on horretatik, «etnotipiaren» azterketa egiten duenean bere liburu klasikoan (*L'Europe des Ethnies*). Kontzeptu horixe egongo da Kongresuaren erdi-erdian; horixe argitzea, zehaztea, eta finkatzea, eta horretxan balio juridikoa oinarritzea izango da horren eginkizunik nagusienetakoa.